



Aimar Margaetxebarriak pilota profesionalen debutatuko du, zapatuan, Zornotzako frontoian. Hasieran, Unai Lasogaz jokatu behar zuen, baina Laso lesionatu egin da eta Mikel Urrutikoetxea izango du bikotekide. Asko lagundu diola eta laguna duela dio, eta ilusio berezia egiten dio beragaz debutatzeak. • 20

"Urrutikoetxeagaz jokatzera eta bera nire debuteko parte izatea berezia da niretzat"



Kontzertuak, bazkaria, gazteen olimpiadak... Otxandioko jaietako lehenengo asteburuan

Otxandio • Zapatua Gazte Eguneko ekintzei bideratuta egongo da. Jaietako txupina Oihandi abesbatzak eta Mirugain mendi taldeak jaurtiko dute, domeka arratsaldean. • 8



Doctor Deseo zuzenean, Zornotzako jaietan

Zornotza • Karmen eta Santanatu jaiak gaur arratsaldean hasiko dira, hilak 15. Udazken txistulari taldeak irakurriko du pregoia eta jaurtiko du txupinazoa. Lehenengo egunean, musika izango da nagusi. Esaterako, Doctor Deseo taldeak kontzertua emango du. • 22

María Herrerosen 102 obra ikusgai egongo dira Durangoko museoan, abuztura bitartean

Durango • María Herreros ilustratzaile valentziarrak Georgia O'Keeffe-ren bizitzan oinarrituriko komikirako landu dituen irudiak erakutsiko dituzte Durangoko Arte eta Historia Museoan. • 19





Arkaitz Esnaola, Oinatz Bengoetxea, Jon Erasun, Ibai Zabala, Iñaki Lizaso, Bixente Artola eta Beñat Urretabizkaia.

"Pilotaren inguruan euskal komunitatearen jai bat izan da"

Ibai Zabala pilotari berriztarra Ameriketako Estatu Batuetara joan da bidaiari, pilotan jokatzera

DURANGALDEA • E.H. / J.G.

Ibai Zabala pilotari berriztarra Ameriketako Estatu Batuetara bidaiari egin du. Oinatz Bengoetxeagaz, Iñaki Lizasogaz eta Jon Erasunegaz batera, partidu bi jokatu ditu San Frantziskon eta Chinon. Bide batez, inguru hartako leku ezagunak bisitatzeko aukera izan dute denek. Kirola eta aisialdia uztartuta, Oinatz Bengoetxeak pilota utzi aurretik Ameriketako kantxak zapaldu dituzte.

Zelan sortu da bidaiari hau egiteko aukera?

Oinatz Bengoetxeak urrian amaitzen du bere pilota ibilbidea eta horren aurretik Ameriketara etorri gura zuen. Bere sasoiari, proposamena egin zidan. "Bidaiari bat egitea lortzen badut, etorriko zinateke?", galdetu zidan. Nik

baiezkoa erantzun nion. Oinatzek afizionatuetan jokatzeko duen Iñaki Lizaso pilotaria ezagutzen du. Lizaso bera bertso-pilota bat egitera etorri zen orain lau urte. Lau pilotari eta bertsolari bi etorri ziren. Lizaso kontaktua mugitzen hasi zen Oinatz agur moduko bat antolatzeko. San Frantziskoko Euskal Etxeko Tony Huartegaz berba egin zuen. Ameriketara jaio arren, Amaiurren bizi izan zen hogeitaka urtean, eta orain berriro bueltatu da. AEBetako mendebalera etorri gara. San Frantziskon, Bakersfielden eta Chinon partidu bana jokatzeko zuten asmoa.

Bartzelonatik irten zenuten, San Fermín Egunean.

Bai. Bartzelonatik irten behar genuenez, hango Nafarren Etxean jokatu genuen. Lau pilotarik bi-

daiatu dugu eta bakoitzak Bartzelonako gazte batez jokatu genuen. Uztailearen 7an, San Fer-

Oinatz Bengoetxeak urrian amaitzen du bere pilota ibilbidea, eta horren aurretik Ameriketara etorri gura zuen

min egunean, Bartzelonan jokatu genuen, eta 8an Ameriketara etorri ginen. Bakersfieldeko euskaldun gehienak Euskal Herrira etorri direnez, partidu hori ez dugu jokatu.

Ameriketara zein izan da plana?

San Frantziskoko Euskal Etxeko frontoian jokatu genuen. Frontoi

politikoa daukate, hamar kuadrokoa. Estatu Batuetan gure artean jokatzeko dugu. Iñaki Lizaso afizionatua, bere sasoiari profesional izandako Jon Erasun afizionatua, Oinatz Bengoetxea eta lauok gabiltza bidaiatzen. San Frantziskon Iñaki Lizasogaz jokatu nuen, beste bien kontra. Oinatzek eta Erasunek irabazi zuten, 22-20. Chinoko Euskal Etxean aldatu egin ditugu bikoteak. Oinatzek eta biok Lizasoren eta Erasunen kontra jokatu dugu, uztailearen 13an.

AEBetan zesta-punta izan da ezagunena orain dela gutxira arte.

Zesta-punta izan da nagusi eta, hori dela eta, oso pilotari gutxi etorri da hona. Baina, telebistaz eta, euskal komunitateak Euskal Herriko aktualitatea jarraitzen du eta frontoiak ere badituzte. Esate

Ibai Zabala Gandarias

Pilotaria

BERRIZ | 1987

baterako, San Frantziskon badago frontoi bat. Chinokoa plaza libre antzeko bat da. Horrelako leku batean, zetan ez baina eskuz jokatu daiteke. San Frantziskora Bakersfieldetik, Renotik... etorri zen jendea gu ikustera. Hiru-lau ordu egin zituzten kotxez. Partiduaren ondoren, herri afari bat egin genuen denok elkarregaz. Chinon ere bai. Beraz, pilotaren inguruan euskal komunitatearen jai bat izan da.

Anekdotak lez, emakume berriztar bat aurkitu nuen. Bere ama, Berrizko Errota baserrikoa. Bera Renekoa zen. Kasualitatez, berriztar baten alaba aurkitu nuen

Izan duzue aukerarik diasporan bizi diren euskaldunekin egoteko? Zer esaten dizute?

Diasporako gehienak hona etorritako euskaldunen seme-alabak edo ilobak dira. Zonaldeka doan kontu bat da. San Frantziskon eta Chinon iparraldeko euskara duen jendea aurkitu dut batez ere. Iparraldeko euskaldunak dira, bere sasoiari artzain etorritakoak. Oso euskara garbia dute eta harritzekoa da. Anekdotak lez, emakume berriztar bat aurkitu nuen. Bere ama, Berrizko Errota baserrikoa. Bera Renekoa zen. Beraz, berriztar baten alaba aurkitu nuen, kasualitatez.

Zer ikusi edo bisitatu duzue?

Estatu Batuetan pelikuletan ikusten duzun horren antzekoa da. Dena da handia. Kotxe handi eta garestiak, jendea ere sendoa, berba egiteko modu yanki hori. Gu San Frantziskon, Las Vegasen eta Los Angelesen egon gara. San Frantziskon, euskaldun batez hiria ezagutzera joan ginen. Golden Gate ikusi genuen, Golden Street Warriors saskibaloitza taldearen kantxa ere bai. San Frantziskoko aldatsak ere ikusi genituen. Pelikuletako irudi mitikoa da eta egia da, aldats handiak dira. Eskerrak kotxeak automatikoak direla. Gero, Las Vegasera joan ginen. 8 bat orduko bidaiari da. Desertu erdian dagoen hiria da, eraikuntzaz beterikoa. Bidean, desertua da dena. Kasinora eta joan ginen. Parranda egiten ahalegindu ginen, baina ez da guk ezagutzen dugun parranda hori. Ez genuen Las Vegaseko parranda zoro horietarako ere.



Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira

Batu Anbotoko
Whatsapp taldera!



anboto

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Perun jaio zen arren, Juan Carlos Cárdenas Arrigorriagan bizi da. Administrazioan lan egiteko hasi zen euskara ikasten, eta orain beste urrats bat eman du: lankideekin eta alabagaz euskaraz berba egin gura du. Bere euskara hobetzeko, Zornotzako barnetegian ikastaro trinko bi egiten dabil uztailean zehar. Gaurko ariketa ANBOTOKo galderei erantzutea izan da. Bikain gainditu du proba.

Zerk bultzatuta eman duzu izena barnetegian?

Eusko Jaurlaritzan lan egiten dut eta orain dela urte batzuk euskara ikastea erabaki nuen. Hasieran, lanagatik bakarrik hasi nintzen ikasten, baina orain alabarekin eta lagunekin euskaraz hitz egin nahi dudalako jarraitzen dut ikasten.

Nire lankideek euren artean euskaraz hitz egiten dute normalean. Orain ni ere saiatzen naiz

Zenbat egun egongo zara barnetegian?

Uztailean 30 egun egingo ditut. Bi ikastaro trinko egin nahi di-

“Barnetegian denbora guztian euskaraz hitz egiten dugu, batere lotsa gabe”

Askok euskara ikastera bideratzen dituzte udako oporrak. Juan Carlos Cardenasen kasua da hori

tut. Denbora gehiago banu hiru ere egingo nituen, baina, oraingoz, honekin nahikoa da. Barne-
tegia oso leku egokia da euskara ikasteko eta praktikatzeko.

**Egun osoan euskara ikasten eta praktikatzen, igartzen duzu aurre-
rapausorik?**

Egunero euskaraz hitz egiten dut ikaskide eta irakasleekin, eta barnetegian ikastea aukerarik onena da; modurik azkarrena da euskara hobetzeko.

**Zein da barnetegian duzuen dina-
mika?**

08:00etan gosalduta eta 08:30etik 14:00etara klasea izaten dugu, ordu erdiko atsedendaldi batekin. Goizean gramatika eta mintza-
praktika lantzen ditugu. Arratsaldean, 15:00etatik 18:00etara, euskara jolasak eta berba egiten dugu. Ostegunetan txangoak egiten ditugu lekuak ezagutzeko. Joan zen ostiralean Añanara joan ginen, esate baterako.

Zein giro topatu duzu?

Giroa oso ona da eta euskara praktikatzeko gaude denok. Den-



bora guztian euskaraz hitz egiten dugu, batere lotsa gabe (barrez). Hori oso garrantzitsua da edozein hizkuntza ikasteko. Lagun berriak egiteko ere oso giro ona dago.

**Zure egunerokotasunean, zein lo-
tura duzu euskaragaz?**

Nire lankideek euren artean euskaraz hitz egiten dute normalean. Orain ni ere saiatzen naiz beraiekin euskaraz egiten.

Oraingo belarriprest naiz, ez daukat maila nahikorik ondo hitz egiteko, baina ulertzeko bai. Nire alabak euskaraz ikasten du eta berarekin ere hitz egin dezaket.

Eduki sexistarik bako musika zerrenda zornotzarren eskura



Musika zerrenda Spotify aplikazioan dago eskuragarri.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak Spotify kontu bat sortu eta eduki sexistarik bako musika zerrenda bat ipini du herritarren, elkarten eta ostalarien zerbitzura. Tresna honen bitartez, udalak "tokiko musika, musika arduratsua, errespetuzkoa eta ez-sexista" kontsumitzera gonbidatu gura ditu herritarrak; publiko orokorra eta gazteak, "berezi". Gazteekin batera "hausnarketak eta eztabaidak" sustatu gura dituzte, "gizartea eraldatzen laguntzeko, matxismoari aurre egiteko eta berdintasuneko gizartearen alde egiteko". Besteak beste, Beldur Barrik programaren barruko abestiak eta Zor Hontzaren abestia sartu dituzte.

Gazteen emantzipaziorako eta gizarte ekintzarako laguntzak, prest

Zornotzako Udalak diru laguntza sozialen lau poltsa kaleratu ditu. Eskariak egiteko epea zabalik dago

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak laguntza sozialetarako lau diru poltsa aktibatu ditu. Batetik, desgaitasuna dutenentzako laguntza ekonomikoak daude. Tratamendu terapeutikoak lagunduko dituzte diruz. 25.000 euro ipini dituzte poltsa horretarako. Bestetik, irabazi asmorik bako elkarteentzako laguntzak daude. Udalak diruz lagunduko die egoitza fiskala Biz-

kaian duten baina jarduerak Zornotzan egiten dituzten elkarte eta Gobernu Kanpoko Erakundeak. 30.000 euro ipini dituzte horretarako. Bestalde, 20.000 euro ipini dituzte Gazteen etxebizitza alokairuan laguntzeko. Laguntza hau 18tik 35 urtera bitarteko gazteentzat izango da. Azkenik, 80 urtetik gorako herritarrei lagunduko diete, etxeko bainuontzia dutxa bihurtu dezaten.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko uztailearen 15a
20. urtea - 901. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Obrak amaituta, Arandoño Torre kaleak itxura berria izango du abuztu amaieratik aurrera

Kalea asfaltatzen hasterakoan, ibilgailuen trafikoa Uribarri kaletik desbideratuko dute, Zugaza zinemaren paretik

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak aurrera jarraitzen du Arandoño Torre kalea berri-tzen. Martxo bueltan hasi zituzten lanak, eta hainbat jarduera egin dute ordutik hona. Ekintza nagusiak ur edangarriaren sarea berritzea, ur zikinen eta euri uren sarea berritzea eta Iberdrolako sare berria ipintzea izan dira. Horrez gainera, kaleko argiteria hobetuko dute LED teknologia darabilten zortzi farola berri ipinita. Zoruari dagokionez, Durango Udalak espaloiak, asfalto, kale-altzariak eta berdeguneak berrituko ditu. Lan guztiak abuztu amaierarako amaituta izatea gura dute udal agintariak.

Egunotan, Arandoño Torre kaleko ibilgailuen trafikoa desbideratuta egon da lanekin aurrera egin ahal izateko. Uribarri kalera sartu



Arandoño Torre kalean ur hornidurari loturiko lanak egin dituzte, besteak beste. Laster kalea asfaltatzen hasiko dira.

eta Zugaza zinemaren paretik igarota, ibilgailuek Azoka kalerako desbideraketa hartu behar izan dute. Momentu honetan, Arandoño Torre kaleko trafikoa lehengoratu-

ta dago. Ibilgailuak kale horretatik bertatik dabilta pasatzen. Baina kale hori asfaltatzen hasterakoan, trafikoa Uribarri kaletik desbideratuko dute berriro, Azoka kalera.

Jolasgune berriak, esleituta

Durango Udalak umeentzako parke berri bi atontzeko lanak esleitu dituela azaldu du prentsa oharrean. Txibitenan eta

Sasikoan ipiniko dituzte jolasguneak. Azken honek lehenagotik zegoen parkea ordezkatu du. Bestalde, Zabalarra ikastetxe-ko jolasgunea ere hobetuko dute, kaltetuta zegoen hainbat elementu konponduta. Udalak 83.395 euro ipiniko ditu lanetarako.

Umeentzako parkeok San Inazion eta Otamotzenan egiten dabilta lanei gehitu behar zaizkie. Udal iturriek diotenez, obra horiek eginda "aisialdirako guneak hobetu eta handitzea" da asmoa. "Gobernu talde honen apustuatariko bat umeentzako aisialdi eskaintza hobetzea da. Otamotzenako parke berria egiten eta San Inaziokoa berritzen gabiltza, eta datozen hiletan Txibitenako eta Sasikoako haur parkeen txanda izango da. Datozen hiletan hainbat proiektugaz jarraituko dugu lanean, Durango herri atsegina izan dadin haur eta gazteentzat", adierazi dute Aritz Bravo eta Jorge Varela zinegotziek.

Bisita gidatuak 'zuri-beltzeko' Durango eta hileta-errituak ezagutzeko

Turismo Bulegoak hiru bisita gidatu antolatu ditu udarako. Herritarrak eta bisitariak parte hartzera gonbidatu dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Bisitatariko batek Durango zuri-beltzean ikusteko aukera eskainiko du. Antzinako irudiak baliatuta, argazkiak hartu ziren puntu beretik begiratuko diote herriari, denboran izandako aldaketak ikusteko. Santa Ana, udaletxea, Ezkurdi, Andra Maria eta Kurutzia kalea bisitatuko dituzte. Bisitak uztailearen 23an eta abuztuaren 28an izango dira.

Beste bisita bat Andra Mariko basilika sakon aztertzeke izango da. Kaperak, ganbera, museoa eta koroa aztertuko dituzte. Bisitak uztailearen 9an eta irailaren 3an izango dira. Azkenik, Euskal Herriko hileta-errituak ezagutzeko moduak, adibidez. Ordutegi eta zehaztasun guztiak anboto.org atarian daude ikusgai.

EAJk udalbatzetako interbentzioen araudia zehaztea eskatu du

Jeltzaleen iritziz, halako tresna bat ez izateak egoera "ilogikoan eta bidegabean" uzten du Durango EAJ

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango EAJk ohar batean zabaldu duenez, gobernu taldeko kideak "etengabe eta despotikoki" ari dira jeltzaleei osoko bilkuretan berba hartzeko duten eskubidea ukatzen. Ekaineko osoko bilkura ipini dute horren adibidetzat. Jeltzaleen berbetan, ekainaren 29ko udalbatzan "EAJren bozemaileari ez zioten berari egindako interpelazio bat erantzuten utzi". Hori dela eta, zortzi zinegotzi

jeltzaleek osoko bilkura horren txosten juridikoa egitea eskatu diote udalari. Bestalde, ROM lez ezagutzen den araudia zehaztea ere eskatu dute. Araudiak talde politikoen interbentzioak arautzen ditu, eta, jeltzaleen iritziz, halakorik ez izateak egoera "ilogikoan eta bidegabean" uzten du EAJ. ROMA ipintzea aspaldiko eskaria da, oraingo zein lehenagoko agintaldietan oposizio indarrek eskatu izan dutena.

PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

GUK INOIZ ERE EZ ZAITUGU ABANDONATZEN UDA OSOAN GAUDE ZABALIK

GALDAKAO
Lapurdi 18 48960
Telf. 944 575 233 629 972 088

DURANGO
Andra Mari 4 48200
Telf. 944 00 82 35 688 766 973

PSE: 199/17

Adinekoen Zentroko kafetegiaren kudeaketa lehiaketa publikora

Aldatsekuan dagoen kafetegia kudeatu gura duenak uztailearen 23ko 14:00ak arte aukera izango du bere eskaera kontratazio-plataformaren bitartez egiteko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak lehiaketa publikora atera du Aldatsekua Jauregian dagoen Adinekoen Zentroko kafetegiaren kudeaketa. Udaletik jakinarazi dutenez, kontratuaren epea urtebetekoa izango da, baina beste hiru urtez luzatzeko aukera egongo da. Aurrekontua 4.586 eu-

rokoa da. Interesa duenak taberna kudeatzeko, kontratazio-plataformaren bitartez egin beharko du eskaria, uztailearen 23ko 14:00ak baino lehenago.

Betebehar batzuk

Bestalde, udalak pleguetan azaldu duenez, taberna zerbitzua

urte osoan zehar eman beharko da, baina ez da behartuta egongo abuztuaren zabalera. Taberna domekatik barikura egon beharko da zabalik, biak barne; 14:30etik 20:00etara, gutxienez. Eta ekainetik irailera arte terrazako zerbitzu osagarria ere eman beharko dute.



Adinekoen Zentroko kafetegia Aldatsekuan dago.

Eingo eta Altxaporrer taldeen erromeriak Argiñetako jaietan

Abuztuaren 5etik 8ra bitartean ospatuko dituzte jaiak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko iragarri dute Argiñetako Kofradi jaietako egitaraua. Jaiak abuztuaren 5etik 8ra ospatuko dituzte. Afari batez eta Eingo taldearen erromeriagaz emango diote hasiera jaiak.

Abuztuaren 6an, meza, kofradien bazkaria eta bolo txapelketa egingo dituzte. Bazkalostean, Ixone Mendizabal eta Alaitz Gallastegi herriko trikitilariak giro-

tuko dute arratsaldea, eta, gauean, Altxaporrer taldearen erromeria egongo da. Domekan, auzoko dantza zaharrak, umeentzako parkea eta bertso-kantu afaria egongo dira. Jon Maia eta Uxue Alberdi arituko dira bertsotan, eta Eneko Abasolo 'Abarkas' gaiak ipintzen. Beñat eta Ugaitz izango dira musikariak. Paella janagaz eta disko festagaz emango diote amaiera jaiak, abuztuaren 8an.



Ixone eta Alaitz trikitilariak, Apatamonasterioko jaietan.



Laugarrenez egingo dituzte aurrekontu parte hartzaileak.

Atxondon martxan dira aurrekontu parte hartzaileak

Herritarrek irailaren 30era arte izango dute aukera euren proposamenak udaletxean aurkeztu ahal izateko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2023ko aurrekontu parte hartzaileetan sartuko diren proposamenak jasotzen dabil Atxondoko Udala. Uztailearen 1etik dabilta proposamenak jasotzen, eta irailaren 30era arte egongo da aukera proposamenak aurkezteko. "Aurten laugarren prozesuagaz hasiko gara, eta herritarren iritzia eta ideiak ezagutu gura ditugu gure herria

hobetzen jarraitzeko", azaldu du Xabier Azkarate alkateak. Proposamenak udaletxean aurrez aurre, 673 343 065 telefonora idatzita edo sare sozialen bitartez aurkeztu ahal dira. 40.000 euro ipini dituzte aurrekontu hauetarako.

Bestalde, aurreko prozesuei eskerrak besteak beste tenis pista hobetu eta Axpeko jolasgunea berriro dutela esan dute.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen martitzenean, Abadiñoko Udalak bilera irekia egin zuen herriko merkatariekin. Bertan, EH Bilduko zinegotzi bi egon ziren eta oposizioek ohar bat bidali dute batzarraren balorazioa egiteko. Ohar horretan azaldu dutenez, Abadiñoko merkataritzaren egoera "kezkaigarria" da, geroago eta gutxiago kontsumitzen delako herriko komertzioetan. Eta, gainera, herrian geroago eta denda gutxiago dagoela azaldu dute. "Muntzaratzen dagoeneko ia ez dagoela komertziorik, eta Zelaietako peatonalizazioagaitik erosleen kopurua asko jaitsi da", azaldu dute. Horrez gainera, udalaren bonu kanpainak eta merkatariek elkartearantzako diru laguntza ondo etorriak direla esan dute, baina horregaz ez dela nahikoa.

Arazoari soluzio bat emateko, EH Bilduk hainbat proposamen egin du. Alde batetik, diagnosi profesional bat egiteko eskatu dio udalari, eta ekintza plan bat adosteko. Bestalde, merkatariek elkartea kudeatzeko laguntza bat kontratatzea eskatu dute. Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari legedia aldatzeko eskatzea proposatu dute, autonomoek eta aktibitate berrien sorrerak dituzten muga eta arazo orokorrak saihesteko.

Abadiñoko EH Bilduk "kezkaigarritzat" jo du herriko merkataritzaren egoera

Abadiñoko Udalak deituta, bilera egin zuten herriko merkatariekin; EH Bilduk ere parte hartu zuen bertan



Traña-Matienako argazkia.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
RPS: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangon

**IREKIERA
ESKAIINTZA**
(2022ko uztailearen 25a arte)

Lehen bisita:
Erradiografia, diagnostikoa eta hortzak
garbitzea doan

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaiak
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naiia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

**PAUSOZ
PAUSO**
Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behe 48200 durango

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetorre, 2C blokea, behe -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Gazte Eguna eta askotariko musika Otxandioko jaietako lehenengo asteburuan

Oihandi abesbatzak eta Mirugain mendi taldeak jaurtiko dute jaietako txupinazoa, domekan



Txupinazo egunean danborrada saioa ere izaten da.

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Santa Maña jaiak ekitaldiz beterik hasiko dira, asteburuan. Gaur bertan, Oihandi abesbatzak 50. urteurreneko kontzertua emango du, elizan, eta, ondoren, afari herrikoia egongo da.

Zapatua Gazte Eguna izango da eta gazteei begirako ekintzak izango dira nagusi: bazkaria, olinpiadak, musika... 22:00etan, Gorrotoa Gorroto, Estutu eta DJ Rosamari arituko dira, gaztetxean.

Zapatuko Gazte Egunean gazteei begirako ekintzak izango dira nagusi: bazkaria, olinpiadak...

Domeka arratsaldean, Oihandi abesbatzako eta Mirugain mendi taldeko kideek txupinazoa jaurtiko dute udaletxeko balkoitik. Iluntzean, Trikizio taldeak erromeria joko du.

Astlehenean, Santa Maña egunean, Otxandiko bandak eta txistulariek herriko kaleak girotuko dituzte, eguerdian. Arratsaldean, 17:30ean, herri kirol erakustaldiak egingo dituzte, plazan, eta, ondoren, Urduri dantza taldeak ikuskitzuna egingo du. Gauean, erromeria egongo da, Joselu anaien eskutik.

Jaien harira, Otxandioko Aurrera Begire elkarteak hainbat ekimen prestatu du

OTXANDIO • J.D.

Aro garaikidean herrian egon diren giza eskubideen urraketan argipena eta erreparazioa sustatzea helburu duen Aurrera Begire elkarteak hainbat ekimen antolatu du Otxandioko jaien harira. Domeka honetan, uztaillak 17, herri bazkaria egin-

Uztaillaren 21ean, Iñigo Iruinek Lucia Urigoitiaren heriotza izango du berbagai mahai-inguruan

go dute Pasealekuan. Bazkalostean, Aixerikok eskuz egindako gitarragaz abesti bat abestuko dute, eta, ostean, Naiara eta Izarra trikitilariak izango dira. Uztaillaren 21ean, 19:00etan, Iñigo Iruin abokatuak Lucia Urigoitiaren heriotza izango du berbagai kultur etxean antolatu duten mahai-inguruan. Azkenik, uztaillaren 22an, 21:45ean, ekitaldia egingo dute Andikona plazan.

Aurten, Mendi Gainek barik lurretako dantza taldeak egingo du saioa jaietan

Aurten ez dute dantzari nahikorik batu saiorako, eta udalak alternatiba bat bilatu du

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Mendi Gain Dantza Taldeak dantza saioak egiten ditu herriko jaietan, baina aurten ez da horrelakorik egongo. Lesioak edo konpromisoak direla medio, aurten ez da behar den beste dantzari batu taldea osatzeko. Horren ondorioz, udalak alternatiba bat bilatu du eta irailaren 4an 12:00etan San Ageda egunean izango den saioa

lurretako dantzariak egingo dute. Mendi Gain taldekoek esan dutenez, aurten ez batzeak ez du esan gura datorren urtean batuko ez direnik. Aurtengo kasua hainbat zirkunstantziek bat egin dutelako gertatu da.

Mezarik ez

Urtero lez, Santa Ageda eta Santo Tomas egunak izen bereko ermiten

inguruan ospatuko dituzte, irailaren 4an eta 11n, hurrenez hurren. Baina aurten ez da mezarik egongo ermitetan. Abadeari meza prestatzen urte luzez lagundu zion pertsonak erretiroa hartu du, abaderik ez da etorriko, eta, ondorioz, mezak bertan behera geratu dira. Asteburuetako mezekin berdina gertatzen da. Ia urtebete da Izurtzan meza eman zutenetik azkenekoz.



Mendi Gain taldeko dantzariak Izurtzako plazan dantza saioa eskaintzen.

Emilio Arsuagaren eta bere taldearen blues doinuak, zapatuan, Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Mañariko plaza blues doinuek hartuko dute zapatuan. Emilio Arsuaga gitarrista, armonika-jotzaile eta abeslaria buru duen The Mads Reeds taldeak kontzertua emango du plazan, zapatuan, 19:00etan. Herriko Tabernak antolaturiko kontzertua da. Gonbidatu berezi bat izango

Mañariko kontzertuan, gonbidatu berezi bat izango dute: Chris Bell gitarrista amerikarra

dute: Chris Bell gitarrista amerikarra. Kontzertua doakoa da.

Musikari hauek Euskal Herriko dabilta egunotan. Hilaren 15ean, barikua, Arrasate Blues jaialdian joko dute eta Herriko Tabernakoek hori aprobetxatu dute Mañariko kontzertua antolatzeko. Arsuagak aurretik ere eskaini izan du zuzeneko Mañarian, sasoi bateko U2 tabernakoek gonbidatuta.

Martxan da Mallabiko jaietako jubilatuen bazkarian parte hartzeko izen-ematea

MALLABIA • J.D.

Udalak herriko jubilatuei eskaintzen dien bazkaria urtero errepikatzen den hitzorduetariko bat da Mallabiko jaietan, eta aurtengo aldia ez da salbuespena izango. Ohikoa duten moduan, abuztuaren 16an egingo dute, San Roke egunean, eta Kontzejuzarrean

Ohikoa duten moduan, jubilatuen bazkaria abuztuaren 16an izango da, San Roke egunean

batuko dira. Bertan parte hartzeko izen-ematea aste honetan hasi du Mallabiko Udalak eta abuztuaren 5era arte egongo da zabalik. Interesdunek udaletxera bertara joanda edo telefonoz deituta sartu daitezke zerrendan. Ekimen jendetsua izaten denez, udal arduradunek gurago izaten dute aurretik jakin zenbat jende batuko den, dena prest izateko.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

Zornotzan eta Otxandion Anbotokide kanpainaren inguruko informazio mahaiak eta otzararen zozketa

Zapatuan Zornotzan egongo gara; domekan, Otxandion. Herritarrek zozketetan parte hartzeko aukera izango dute

DURANGALDEA • ANBOTO

Asteburu honetan, ANBOTOK pauso bat gehiago emango du komunitatea handitzen jarraitzeko bidean. Lantaldeko kideak Zornotzara eta Otxandiora joango dira Anbotokide kanpainari buruzko aurrez aurreko informazioa eskaintzera. Zapatuan, postutxo bat

ipiniko dugu Zornotzako Zezilia Gallartzagaitia kalean, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Domekan, Otxandiora joango gara herritarrei kanpainaren berri ematera. Arratsalde partean, jaietako txupinazoan, herriko plazan ipiniko dugu postutxoa. Asteburu honetan Zornotzara eta Otxandiora baino

ez garenez joango, datozen aste eta hileetan Durangaldeko beste hainbat herritara mugituko gara komunitatea handitzera.

ANBOTOK ipiniriko postuetara doanak zozketa berezietan parte hartzeko aukera izango du. Zozketan izena ematen duenak euskal

ANBOTOren postura doanak otzara eder bat eta bidaia bat irabazi ahalko ditu

produktuekin beteriko otzara eder bat eta lagun birentzako bidaia bat irabazi ahalko ditu. Parte hartzeko, nahikoa izango da inprimaki bat betetzea.



ANBOTOko lan taldea osatzen duten kideetarikoz batzuk.

Garaiko jaietan gazte bazkaria egingo dute, lehenengoz

Herriko gazteak geroago eta gutxiago batzen direla eta, bazkaria egitea erabaki dute hartu-emanak sendotzeko

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko jaietan gazte bazkaria egingo dute, lehenengoz. Irati Milikua da ekitaldia prestatzen dabilen kideetarikoz bat. "Gazteon artean komentatu izan dugu geroago eta gutxiago elkartzen garela. Orain arte, dantza saioek bete dute gu batzeko funtzio hori, baina azken urteotan dantza uzten joan garenez, iruditu zaigu jaiak aitzakia polita direla elkartzeko", esan du Milikuak. Whatsapp talde batez hasi zuten dena. Jaiak prestatzeko bileretara joan ziren gero, eta bertan proposatu zuten gazte eguna egiteko ideia. 4-6 gazte daude antolakuntza arloan, eta 18 bat whatsapp taldean. "Gazteak Garain, egon bagaude. Baina bizimodua beste herri batzuetan

egin dugunez, eskolara beste herri batzuetara joan izan garenez, kuadrillak beste herri batzuetan sortu ditugunez, gertatu zaiguna da gure artean ez dugula elkar ezagutzen. Orain arrazoi bat dugu elkarregaz egoteko", dio Milikuak.

Uztailaren 29an izango da gazteen eguna. Bazkaria egingo dute lehenengo, eta ginkanara zein dantzaldira batuko dira gero. "Bazkaria gure artekoa izatea gura dugu, gazteona", azpimarratu du Milikuak. Oraingoz, baina, xehetasunak lotu barik dituzte. "Jubilatuak prest daude guri laguntzeko. Baina segun eta zenbat gazte ematen duten izena bazkarirako, edo jubilatuek prestatuko dute otordua, edo catering bat kontratatuko dugu",

Zaldua Mendi Taldeak 25 kilometroko mendi martxa antolatu du zapatarako

Elkarteak mendi martxa antolatzen duen 43. aldia izango da. Parte hartzaileek 1.500 metroko desnibel metatua gaindituko dute. Martxa eliza ondoko plazatik hasiko dute

ZALDIBAR • JOSEBA DERTEANO

Zaldua Mendi Taldeak Zaldibarko 43. Mendi Martxa antolatu du zapatarako, uztailearen 16rako. 7:00etan ekingo diote ibilbideari, Zaldua plazatik (elizatik) hasita. Dena dela, antolatzaileek jakinarazi dute inksripzio epea ordubete lehenago, 06:00etan, zabalduko dutela. Helmuga udaletxean izango da. Mendi elkarteko kideek zein mendi federazioko txartela duten kideek abantailak izango dituzte ordaindu beharreko prezioan. Ibilbideak 25 kilometro izango ditu eta hori egiteko gehienezko denbora sei ordu eta erdian ipini dute. Mendizaleek 1.500 metroko desnibel metatuari aurre egin beharko diote.



Zaldua Mendi Taldeko kideek eginiko mendi irteera bat.

Txapito Guzman eta Ibarako langostinoen agur birak Goierri auzoa bisitatuko du

Gaur, barikua, hasiko dira Goierri auzoko Santa Marineko jaiak; 22:00etan hasita, VI. rock jaialdia egingo dute



Txapito Guzman eta Ibarako langostinuen.

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko jaietako biharamuna igarotzeko astirik eduki barik, Goierri auzoko bizilagunak Santa Marineko jaietan murgilduko dira. 19:00etan hasiko dira jaiak, Donien Atxa jasota. 20:30ean sardina jana edukiko dute, eta, ostean, VI. rock jaialdia hasiko da. Hatxe, Koltan eta Txapito Guzman eta Ibarako langostinuen taldeek parte hartuko dute jaialdian; Txapitoren kasuan, agur biran murgilduta daude. Zapatuan, ohiko bakailao, paella, mus eta briska txa-

pelketak egingo dituzte, trikitalariek inguruak girotzen dituzten bitartean; Barre konpainiak antzezlan bat plazaratuko du gero. Gauean, Jotatxo DJk musika ipiniko du dantzalekuan. Domekan, omenaldia egingo diete auzoko nagusiei, eta Bizkaiko bolo-joko txapelketa ere egongo da. Arratsaldean, asto probak egingo dituzte. 21:30ean, argazki proiektzioa egingo dute.

Uztailaren 18an, astelehena, 13:00etako mezagaz emango diete amaiera Santa Marine jaiak.

Eñaut Aiartzaguena ilustratzaile iurretarraren lanak Urkiolako Toki Alai parketxean ikusgai

Urkiolako parajeetan egindako hamar akuarela batzen ditu uda osoan ikusgai egongo den erakusketak

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Orain urtebete inguru, Eñaut Aiartzaguena Bravo ilustratzaile iurretarrak mendi irteerara akuarelak eramateari ekin zion. Orain, lan horien erakusketa antolatu du Urkiolako Parke Naturaleko parketxean, *Mendi gardenak* izenekoa. Erakusketan, parke naturaleko hamar paraje jasotzen dira. Erakusketa uda osoan egongo da ikusgai.

"Mendiak dira gehienak, baina kobazulo bat ere badago", Aiartzaguena azaldu duenez. "Mendi ir-

teerara akuarelak eta koadernoak eramaten hasi nintzen. Mendira igo, lasai hartu, eta inguratzen ninduen paisaia, beti ikusten dugun paisaia, beste era batera islatzen hasi nintzen", dio. Sare sozialetan zabaltu zituen irudiak, eta parke naturaleko arduradunak beragaz hartu-emanetan ipini ziren. "Ea Urkiola inguruko parajeen irudirik banuen galdetu zidaten. Batzuk bai, banituen eginda, baina aitzakia baliatuta, mendira jo eta beste hainbat irudi egin nuen", gaineratu du.



Aiartzaguena orain urtebete hasi zen Urkiolako parke naturaleko irudiak akuareletan islatzen.

Iurretako dantzariak Amaiurko batailaren oroimen ekitaldian parte hartuko dute asteburuan

Zapatuan Amaiurko (Nafarroa) gazteluko gudaren 500. urteurrena gogoratuko dute, Euskal Herri osotik helduriko dantzariekin

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Uztailearen 16an, zapatuan, 500 urte betetzen dira Gaztelako eta Aragoiko armadak Amaiurko gaztelua, Nafarroako Erresumaren azken erresistentzia, setiatu zutenetik. Eta urteurrena gogoratzeko, Euskal Herri osotik ailegaturiko dantzariak gaztelu zaharraren ondoan egingo den ekitaldian parte hartuko dute. Baztango Baztandarrek taldea, Iruñeko Duguna eta Amaiur dantza taldeak, Tolosako Udaberri, Beasaingo Aurtzaka, Donibane Lohizuneko Begiraleak, Gasteizko Jare, Baigorriko Arrola eta Zuberoako dantzariak parte hartuko dute erakustaldian. Baita Iurretako dantzariak ere.

Dantzarien biltzarra egin ondoren, 11:00etan, Amaiurko herria zeharkatu eta gazteluraino joango

dira kalejiran. Ekitaldi instituzionala egingo dute Amaiurko elizaren aurrean, eta bertan Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere parte hartuko dute. Lore eskaintza egin ondoren,

dantzariak erakustaldia egingo dute.

Egunak herriko plazan jarraituko du. Mutildantzak, gaita, muxikoak eta larrain dantza ere egingo dituzte, 13:00ean, herriko plazan,

eta dantzariak ez ezik bertaratutako bisitariak ere izango dute parte hartzeko aukera. Egunari amaiera emateko, herri bazkaria antolatu dute. Arratsaldean ere jai giroa izango da nagusi Amaiurren.



Iurretako dantzarien erakustaldietariko baten irudia.

Barsanti konpainiak 'Akabo' lana erakutsiko du Berrizen

BERRIZ • A. M

Durangaldeko Barsanti antzerki konpainiak *Akabo!* lana aurkeztuko du Berrizen gaur. Ohikoa duten moduan, umorearen bitartez gai mardula jorratuko dute konpainiako kideek. Kasu honetan, suizidioari buruzko lana prestatu dute. "Urte askoan tabu izan da, eta oraindik ere hala da, jasan duen estigmatizazioagaitik; batez ere, eliza katolikoaren eskutik", diote. Emanaldia 19:00etan izango da, Olakueta plazan. Eurria eginez gero, eskolako patioan egingo dute. Bestalde, eguaztenean, hilak 20, Andoni Bastarrikak hondarragaz eginiko irudien erakusketa eta tailerra egingo ditu; 17:00etan izango da hori, Olakueta plazan. Eurria egiten badu probalekuan izango da.

GAER DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

**Seguros
Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxes: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

Edan taldea berriro ere batuko da 'Azken arda dantza' egiteko

11 urteren ondoren, erronomia taldea kontzertu bakar bat emateko igoko da oholtzara. lurretan izango da, irailaren 30ean

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Kortatuk Iruñean *Azken guda dantza* egin zuen moduan, Edan taldeak *Azken arda dantza* egingo du etxean, Iurretako plazan. 11 urte pasatu dira Edan erronomia taldeak bere emanaldi bihurrien artean azkena egin zuenetik. 2011n egin zuten agurrekoa, Durangoko jaietan. Orain, baina, taldeak azken kontzertu bat emango

duela iragarri du, "arrazoi berezi bategatik". Emanaldia Iurretako plazan izango da, irailaren 30ean, jaiekin bat eginda. Antolatzaileek ez dute xehetasun gehiagorik eman oraingoz, baina pentsatzen da ardoak dezenteko presentzia izango duela kontzertuan zehar, eta oholtzan kantari bibeledunak ikusi ahalko direla, Xabier Saldiasen estiloan.



Edan taldeak 2011n lurretan emandako kontzertua.

Politikan

Mireia Elkoriribe
Zenikaonandia
EAJ



Batikaoaren politika

Azken hiru urteotan ohituta gaude Durangoko gobernu taldeko titular handiekin, baina askotan errealitatea manipulatzen egiten dute. Eta horixe gertatu da, hain zuzen ere, trenaren lurretarako prestatutako eremua irekitzea aurreakordioaren emaitza izan dela esan dute. Ba ez da horrela. Engainu berri bat da, non errealitatea berriro manipulatzen den.

Egia esan, egokitutako eremu hori geltokiaren sarrera nagusiko irisgarritasun- eta hobekuntza-lanen ondorioa da. Orduan, zergatik zegoen hesituta? Izan ere, 2020ko martxoan, gobernu talde honek geldiarazteko eskatu zuen, eta ETSk berraztertze errekurtso bat jarri behar izan zuen, Durangoko Udalak orduan ezetsi zuena.

Orain, bi urte geroago, BEPB trenbidean zuen aurreakordioa herritarrei erakusteko, udalak bere irekieraren berri eman du, baina, egia esan, bi gertakari independente dira, eta gobernu taldearen meritu bakarra arazoak jartzeari uztea izan da. Ordua izan da!

Geltoki nagusira sartzeko eremua irekitzeak ez du zerikusirik trenbidearen BEPB proiektuarekin. Geltokiko sarrera nagusiaren egokitzapenean aurrerapausoak dira. Lan horiek atzeratu egin ziren udal gobernuak oztopoak jarri zituelako. Beraz, orain beraiek blokeatutako desblokeatu dute.

Informazioa ez litzateke batikaoa bezala nahastu behar. Elkarrizketak eta negoziazioak beti politika egiteko modua izan beharko lukete eta ez EH Bilduk eta HE-EPk ohituta izan gaituzten auzi eta liskarrekin. Eta, jakina, informazioa eta mezuak nahastu gabe. Errealitatea modu gardenean jakin behar dugu.

Durungaldea asteen

HAPOaren aurrerapen dokumentua aurkeztu dute jendaurrean Durangon

DURANGO | Behin betiko proiektua onartu baino lehenago, Durangoko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerapen dokumentua aurkeztu du jendaurrean. Dokumentua www.durango.eus atarian dago eskuragarri, eta Udalaren Bulego Teknikoan ere egongo da ikusgai, fisikoki, irailaren 30era arte.



Abadiñoko Udalak 2023rako udal zergak izoztea erabaki du, hirugarren urtez

ABADIÑO | Abadiñoko EAJ eta AI alderdiek osaturiko gobernu taldeak 2023rako udal zergak izoztea erabaki du, hirugarren urtez jarraian. "Uste dugu familiei, saltokiei eta negozio txiki eta ertainei egonkortasuna emateko garaia dela, prezioen igoerari aurre egin ahal izateko eta segurtasun apur bat ematen ahalegintzeko", azaldu du Iñaki Rekalde zinegotziak.



Igerilekuetan "ekintza bandalikoak" egin dituztela salatu du Atxondoko Udalak

ATXONDO | Ezezagun batzuk igerilekuetara gauez sartu, eta kalteak eragin dituztela salatu du Atxondoko Udalak. Ertzaintzari "zaintza areagotzeko" eskatu dio udalak. Gertaera hauen ondorioz, "zerbitzu berriak" ezartzea "ezinezkoa" dela salatu du udalak ohar berean. Atxondoko igerilekuek ez dute taberna zerbitzurik aurten, lizitazio-ara atera ostean inor ez zelako aurkeztu. Gabezia horri erantzuteko, vending makinak ipintzeko aukera aztertzen zebilen erakundea. "Ekintza bandalikoek eta pertsona batzuen gizalegerik ezak asko zailtzen dute zerbitzu berri hori", azaldu du Atxondoko Udalak ohar baten bitartez.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!



MATEMATIKA

$$\text{Red fish} = 8$$

$$\text{Yellow fish} = 3$$

$$\text{Green fish} = 5$$

$$\text{Blue fish} = 2$$

$$\text{Red fish} + \text{Green fish} - \text{Yellow fish} =$$

$$\text{Green fish} + \text{Yellow fish} / \text{Blue fish} =$$

$$\text{Green fish} \times \text{Blue fish} - \text{Green fish} =$$

$$\text{Red fish} + \text{Blue fish} / \text{Green fish} =$$

$$\text{Green fish} \times \text{Yellow fish} - \text{Red fish} =$$

ERREPIKATUTAKO OBJEKTUAK

Irudi hauen artean errepikatzen diren zazpi gauza daude.
Bazara gai denak topatzeko?







Rafa Rueda & HamabiHots

MUSIKA ELORRIO :: Uztailak 16

'Rueda', musika eta literatura uztartzen dituen lana, Elorrrion

Rafa Ruedak 2020an kaleratu-riko *Rueda* azken proiektua aurkeztuko du, asteburuan, Elorrrion. Bere bakarkako seigarren lan luzea du Rafa Ruedak hori, eta gitarra, ahotsa, elektronika eta literatura uztartuz zortzi abestiz osaturiko diskoa kaleratu du. Inge Muller, Joseba Sarrionandia, Iñigo Astiz, Audre Lorde, Mari Luz Esteban, Josu Goikotxea eta Elena Olabereren testuak musikatu ditu Mungiako abeslariak, eta horiek aurkeztuko ditu, laukote formatuan, HamabiHots

abesbatzaz batera. Elorrioko Ganondo parkean emango du kontzertua, 20:30etan, Musikaire Jaialdiaren eskutik.

Bere bakarkako ibilbidearen 20. urteurrenaren atarian, Rafa Ruedak eta bere taldeak, aspaldi jo bako abestiak berreskuratuko ditu, Musikaire jaialdirako errepertorio berezia prestatuta. Gaur egun, ZART sortzaileen plataformaren kidea da Rueda, Harkaitz Cano, Elizabeth Macklin, Alain Urrutia eta Mikel Urdangarinez batera.

Uztailaren 15ean

BERRIZ antzerkia

Akabo! (Barsanti konpainia), 19:00etan, Olakueta plazan.

DURANGO musika

Insömnia, 20:00etan, Platerueneko terrazan.

ELORRIO musika

Tcheka, 20:30etan, Ganondo parkean.

OTXANDIO santamañak

Oihandi abesbatzaren 50. urteurreneko kontzertua, 20:00etan, elizan.

Afari herrikoia, 21:30etan.

ZALDIBAR santamariñeak

Santa Mariñe jaiak iragartzeko txapligoa eta Donien Atxa jasotzea, 19:00etan, Goierri auzoan.
Sardina-jana, 20:30etan.
Kontzertua: Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek + Hatxe + Koltan, 22:00etan.
Bolo-jokoa, 23:00etan.

ZORNOTZA jaiak

Pregoa, txupinazoa eta Zorhontzaren kalejira: Ondalan, Iskabi, Bermeoko KIETB eta Amorebieta-Etxano Udazken Barria, Etxanoko erraldoi eta buruhandien konpartsak, eta Udazken txistulariak eta gaiteroak Zornotzako Musika Bandagaz batera, 20:00etan, plazan.
Kaleko musika:

Euskoorleans Dixie Band,

21:30etan, Euskal Herria plazan eta Kalbarioan.

Doctor Deseo, 22:30etan, Zubiondon.

Zirkinik Bez!, 23:00etan, Zelaieta plazan.

Esto no es rock radical vasco, 01:00etan, Matrailu gaztetxean.

DJ Txelito. Karibe mix. 03:00etan, Matrailu gaztetxean.

Uztailaren 16an

ELORRIO bisita gidatuak

'Argiñetako altxorrek' bisita gidatua, 11:00etan. Taldeek gutxienez 5 lagun eta gehienez 20 izan beharko dituzte, eta izena eman behar da turismoa@elorrio.eus helbide elektronikora idatzita. Bestela, 688 776 270 edo 94 682 01 64 telefono zenbakira deitu daiteke.

OTXANDIO santamañak

Street Boulder, 11:00etan.
Txupinazoa, 13:00etan.
Trikipoteoa, 13:05ean.
Gazte bazkaria, 14:30etan.
Bingoa, 16:30etan.
Olinpiadak, 18:00etan.
Kontzertuak: Gorrotoa Gorroto + Estutu + Dj Rosa Mari, 22:00etan, gaztetxean.

ZALDIBAR jaiak

Zaldibarko XLIII. Mendi Martxa, 07:00etan, Zaldua plazan hasita.

ZALDIBAR santamariñeak

Bakailao eta paella txapelketak, 11:30etan, Goierri auzoan.

Trikitolariak, 12:30etan.

Mus eta briska txapelketak, 16:30etan.

'Eskobien atzetik' (Barre konpainia), 17:00etan. Ondoren, **txokolatea**.

Dj Jotatxo, 22:00etan.

Bolo txapelketa, 23:00etan.

ZORNOTZA jaiak

Karmengo Jaia, goizean, Larrean: Meza, bertsolariak, Udabarri dantza taldea, eta erromeria Triki Piu taldeagaz.

Ondoren, Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga: Hodei Ezpeleta Julen Basozabalen aurka. Harri-jasotzaileak ere egongo dira: Karmele Gisasola 'ZELAI III' (Mallabia) eta Josetxo Urrutia (Leitza).

Umeentzako Bolo Txapelketa, 11:00etan, bolatokian.

Udazken taldearen kalejira, 11:00etan.

Arku-tiroa, 12:00etan, Larrea eskolako patioan.

Kuadrillen arteko altxorren bila, 17:30etan, Zelaieta parkean.

Pilota partiduak: Alberdi II eta Uriondo Zubizarretaren eta Aretxabaretaren kontra, Urrutikoetxea eta Morgaetxebarria Elizegiren eta Jakaren kontra, 18:00etan.

Amorebieta-Etxanoko IV. Duatloi Txikia, 16:00etan, Zelaieta parkean.

Bizikleta Eguna

18:00etan. **Kaleko musika: Kittu**, 20:00etan.

'¡Que buen día!' (Cia Maite Guevara), 20:00etan, Herriko plazan.

Karmenetako X. Bolo Txapelketa, 21:00etan, bolatokian.

Rat-Zinger+ Erruki,

22:00etan, Zubiondo plazan.

En Esenzia Kamp, 22:30etan, Zelaieta parkean.

Chill Mafia, 00:30etan, Matrailu gaztetxean.

DJ Gorriortxu eta Laztana, 05:00etan, gaztetxean.

Uztailaren 17an

DURANGO bisita gidatuak

'Heriotzaren kultura': Tabirako San Pedro eliza eta inguruak, eta Durangoko kanposantua bisitatuko dituzte. Euskaraz 10:00etatik 11:30era, eta gaztelaniaz 12:00etatik 13:30era, Turismo Bulegotik irtenda. Aldez aurretik erreserba egin behar da 94 603 39 38 telefono zenbakira deituta.

ELORRIO dantza

Dantza garaikidea: 'Muda' (Larrua konpainia) + 'Alive' (Lasala konpainia) + 'Dye Dye' eta 'O Tempo Diz' (Ertza konpainia), 19:30etan, plazan.

ELORRIO bisita gidatuak 'Los tesoros de Argiñeta'

bisita gidatua

11:00etan. Taldeek gutxienez 5 lagun eta gehienez 20 izan beharko dituzte, eta izena eman behar da turismoa@elorrio.eus helbide elektronikora idatzita. Bestela, 688 776 270 edo 94 682 01 64 telefono zenbakira deitu daiteke.

OTXANDIO santamañak

Ohiko Salve Regina abestuko da, Oihandi abesbatzaz batera, 18.30etan.

Soinubilen eskutik 'Gora Otxandioarrak' abestia, 19:00etan.

Txupinazoa, 19:15ean.

Danborrada, 19:20an.

Otxandioko presoen eskubideen aldeko eikarretaratzea, 20:00etan,

plazan. Giza Eskubideen Udal Batzordeak deituta.

Trikizio, 20:30etan.

Eusko Labelen haragi pintxoak, 20:30etan.

Trikizio, 23:00etan.

ZALDIBAR santamariñeak

Omenaldia auzoko nagusiei dantzariekin, 13:00etan.

oierri auzoan. Ondoren, salda.

Bolo-jokoa gazteentzat, 17:00etan. Ondoren, Bizkaiko txapelketa.

Asto probak: Irazola (Mallabia), Ureta (Ermua) eta Anarketa (Garai), 18:00etan.

Argazki proiektzioa, 21:30etan.

Jaiei amaiera emateko azken traka, 22:00etan.

ZORNOTZA jaiak

XI. Xake Txapelketa: Agustín Zamakona Memoriala Aldi bereko 50 xake partida, 10:00etan, Herriko plazan.

Rallyen Kotxeen

Erakusketa, 10:00etan, Zelaieta parkean.

Kuadrillen arteko piragua jaitsiera, 17:00etan, Ibaizabal errekan.

Karmenetako XIV Esku-Pilota Txapelketa,

17:00etan, Amorebieta IV frontoian. Federatuen finalak.

“Akabo!” (Barsanti konpainia), 17:00etan, Herriko plazan.

Bertsolariak: Alaia Martin, Aitor Bizkarra, Jone Uria, Igor Elortza, 21:00etan, Zelaieta parkean. Gai jartzailea: Zornotzako Eta Abar Bertso Eskola.

Sorotan Bele Gogoa + Zornotzako Musika

Banda, 22:30ean, Zubiondo parkean.

Uztailaren 17ra bitartean

GARA! erakusketa

‘Zientzia kalean’ erakusketa, herrigunean.

Uztailaren 18an

OTXANDIO santamañak

Otxandioko banderagaz kalejira, 12:00etan. Ondoren, **herriko txistulari eta dultzaineroak.**

Meza nagusia, 12:30ean.

Umeen pilota partiduak, 13:15ean, plazan.

Herri kirolak, 17:30ean, plazan.

Urduri dantza taldearen dantza erakustaldia, 19:30ean, plazan.

Erromeria: Joselu Anaiak, 22:30ean.

Uztailaren 19an

OTXANDIO jaiak

Magia saioa, 12:00etan.

Arimen meza, 12:30ean.

Umeen bazkaria, 13:30ean, plazan.

Emozio eta abilezia erronka, 16:30ean.

Puzgarriak eta tailerrak, 16:30ean.

Tute, mus eta briska txapelketak, 17:00etan.

DJa, 19:00etan, plazan.

Uztailaren 20an

BERRIZ tailerra

Hondarrezko irudiak eta tailerrak Andoni Bastarrikaren eskutik, 17:00etan, Olakueta plazan.

IURRETA tailerra

Xaboi tailerra Warmi Lurreraren eskutik, 20:00etan, Abadetxean. Aldez aurretik izena eman behar da 666 101 373 telefono zenbakira deituta.

‘Argentinako euskal diaspora’ mahai-ingurua, 20:00etan, Abadetxean.

Uztailaren 21ean

ELORRIO musika

Gau Giro: Estitxu, 20:00etan.

ZALDIBAR emanaldia

Argazki rally lehiaketaren argazki emanaldia eta sari banaketa, 19:00etan, liburutegi zaharrean.

Uztailaren 22an

ELORRIO musika

David Walters Trio, 20:00etan, Lariz Jauregian.

OTXANDIO santamañak

Kalerik kale kantari, 19:30ean eta 20:30ean, Soinubelen eskutik.
Soka dantza, 20:00etan, plazan.
Playbacka, 22:30ean, plazan.

ZORNOTZA jaiak

Kuadrillen kalejira, 13:00ean, Kalbario plazatik.
Kuadrillen arteko bazkaria, 15:00etan, Zelaieta parkean.
Yogurinha Borova eta Albina Stardust drag, 16:00etan.
Sakatu elektrotzaranga, 18:00etan, Luis Urrengoetxea kalean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Txistularien XXII.

Kontzertua, 21:30ean, Zelaieta parkean. Artista gonbidatua: Jon Allende.
Supercremalleras + Tremenda Jauria, 22:30ean, Zubiondo plazan.
Musika gaztetxeroa, 00:30ean Matrailu gaztetxean.

Abuztuaren 28ra arte

DURANGO erakusketa

‘Georgia O’Keeffe’ (Maria Herreros), Durangoko Arte eta Historia Musean.

Uztailean eta abuztuan

ABADIÑO erakusketa

‘Mendi gardenak’ akuarela erakusketa, Urkiolako Parke Naturaleko parketxean. Eñaut Aiartzaguena iurretarrak parke naturaleko 10 paraje jaso ditu akuarelaz egindako koadroetan.

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Padre no hay más que

uno 3
barikua **15:** 19:00/21:30
zapatua **16:** 16:45 / 19:00 / 21:30
domeka **17:** 17:00/19:30
astelehena **18:** 17:30 / 20:00
martitzena **19:** 17:30 / 20:00
eguztzena **20:** 19:00

• Entre la vida y la muerte

te
barikua **15:** 19:30
zapatua **16:** 19:30
domeka **17:** 20:00
astelehena **18:** 18:00 / 20:15
martitzena **19:** 18:00 / 20:15
eguztzena **20:** 19:30

• Thor: Love and Thunder

barikua **15:** 21:30
zapatua **16:** 17:00 / 21:30
domeka **17:** 17:30 / 20:00
astelehena **18:** 20:15
martitzena **19:** 20:15
eguztzena **20:** 19:20

• Minions: El origen de

Gru
barikua **15:** 19:30
zapatua **16:** 17:00 / 19:30
domeka **17:** 17:30
astelehena **18:** 18:00
martitzena **19:** 18:00



Tremenda Jauria

MUSIKA ZORNOTZA :: Uztailak 22

Doctor Deseo eta Tremenda Jauria taldeak, Zornotzako jaietan

Pregoa irakurri eta txupinazioa jaurtitzegaz batera jai giroan sartuko dira zornotzarrak, gaur. Kultur ekintzak eta musika aukera zabala ekarriko dute Karmen eta Santanatu jaiak, uztailek azken egunak agortzen dituen bitartean. Asteburu honetan, Doctor Deseo eta Sorotan Bele Gogoratzen entzuteko aukera izango dute Zornotzara bertaratuak.

Uztailaren 22an, bestalde, Tremenda Jauria talde madrildarrak joko du. Kontzertu guztiak Zubiondo plazan izango dira, 22:30ean hasita. Hilaren 22an, Su-

percremalleras taldea ere igoko da oholtza gainera. *Todxs igual* lan berriko abestiak jotzeko aprobe-tzatuko du Tremenda Jauriak. Berezko poztasuna eta amorrua baztertu barik, azken lan luzean baturiko 12 abestiak entzuteko aukera egongo da. Madrildarrek etapa berri bat hasi dute disko horregaz, punk eta rock doinuek, reggaetoiak eta musika elektro-nikoak are eta pisu handiagoa hartuz. Letrei dagokienez, *Todxs* "disko ilunagoa eta intimistagoa" da beharbada, "baina itxaropena beti jomugan, ez galtzeko", esan dute taldekideek.

“Jendeak dena etiketatu behar izaten du, baina guk ez diogu ezeri aterik itxi gura”

Aritz Aranburu 'Tarran', Sergio Devesa eta Ander San Martin zaldibartarrek musika proiektu berria sortu dute: Ezta Ilen



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Lagun artean, Aritz Aranburu 'Tarran', Ander San Martin eta Sergio Devesa musika egiteko gogoz batu ziren entsegu lokalean. Musika munduan urteetan aritutakoak dira eta proiektu honetan post punkaren hurbileko doinuak jorratzen dituzte, baina ez dizkionte ateak "ezeri" ixten; The Jam, Blitz, Peter and The Test Tube Babies eta Fugazi taldeen eragina dutela aipatu dute. Ezta Ilen hirukoteak joan den astean jo zuen debuteko kontzertua, etxean, Zaldibarren.

Zer da Ezta Ilen?

Aritz Aranburu: Erronkarierari buruzko olerki zaharretan irakurri genuen 'Ezta Ilen'; hiztunik ez duen hango euskaraz dago idatzita

olerkia, eta Erronkariko euskarari buruz dio ez dela desagertuko. Eternitate horregaz lotu genuen guk ere, hor egongo dela betiko. Garai hartan, norbaitek sinesten

Hilabete lehenago galdetuz gero, ez nuen esango hain pozik irtengo genuenik lehenengo kontzertutik

zuen euskara ez zela desagertuko, eta sentimendu hori guk musikarekiko dugun sentimendura eraman genezakeela uste genuen.

Ander San Martin: Hasieran, lagun

taldean orain baino gehiago joaten ginen kontzertuetara, eta horregaz ere lotu daiteke. Batzuek estiloa aldatu dute, eta beste batzuek alde batera utzi dute musika. Guk, ostera, musikaren munduan jarraitzen dugula sentitzen dugu.

Sergio Devesa: Antzerako musika entzuten dugu. Pare bat entsegu egin genuen, baina Worth Iten disko berria prestatzen genbiltzan eta proiektutik alboratu behar izan nuen; Jangitz Larrañaga sartu zen taldean, Vulk taldeko bateria-jotzailea. Baina hile batzuk geroago, alderantziz gertatu zen. Bera lanpetuago zebilen, eta ni libreago. Beraz, hirurok elkartu gara berriro.

Lehendik ere ezagunak zarete. Hasieratik argi zenuten zein doinu jorratu?

A. A.: Taldea sortzea Anderri eta biori otu zitzaigun. Txikitatik lagunak gara, musikazaleak biak. Pandemia garaia zeozer egiten hasteko garai ona izan zitekeela pentsatu genuen

Entzuten genituen taldeak hartu, eta doinu horiei buelta batematea zen asmoa

eta ideiak partekatzen hasi ginen, baita soinu-pedalekin jolasten ere. Estilo aldetik ere antzerakoak ditugu. Besteak beste, punk eta oi britaniarra oso gustuko ditugu biok, denboragaz bakoitzak bere

bidea egin duen arren. Beharbada, ni hardcoreari lotuago egon naiz, eta Ander rockari. Hala ere, gauza berriak probatzea lehenetsi dugu Ezta Ilenen. Jendeak dena etiketatu behar izaten du, baina guri probatzea gustatzen zaigu, ez diogu ezeri aterik itxi gura.

A. S.M.: Entzuten genituen talde horiek hartu, eta doinu horiei estilo aldetik beste buelta bat ematea zen asmoa. Bestalde, konposatzerakoan, asko landu ditugu dinamikak, tempoak, soinu pedalak eta ahots melodiak. Asko gustatzen zaigu horiekin guztiekin jolastea, eta landu ditugula esango nuke. Musika asko entzuten dugu; batzuek eragin zuzena dute gugan, beste batzuek ez, baina horren guztiaren emaitza da egin duguna.

D. V.: Taldea definitzea eskatzen digute askok. Bat esatearren, post punka izan daiteke gehien hurbiltzen zaiona, iluna delako, baina ez da erraza etiketa bakarria esatea.

Zelan joan zen Zaldibarko kontzertua?

A. S.M.: Hilabete lehenago galdetuz gero, ez nuke esango hain pozik irtengo genuenik. Oso pozik gaude.

A. A.: Ni 2019tik nengoen kontzerturik jo barik. Hasieran pentsatu genuen jaietan jotzea presaka ibiltzea izan zitekeela, baina orduan ez bazen beti aitzakiaren bat izango genuela pentsatu genuen. Beraz, aste pare batez azeleragailua sakatu genuen, ganoraz ailegatzeko. Jende gutxik zekien zein musika mota jotzen genuen, eta duda hori ere bagenuen, ea zein harrera egingo zigun jendeak. Baina lasai irten genuen oholtzara, pozik geundelako egindakoagaz.

D. V.: Jendeak esan zigun oso gustura egon zela. Esango nuke beste gauza bat espero zutela askok, gu hirurok beste estilo batzuekin lotzen gaituztelako, baina harrera ona izan zen. Askok letrei buruz galdetu ziguten.

Zeri buruz abesten duzue?

A. A.: Izenagaz zerikusia dute askok, ingurua zelan ikusten dugun eta abar. Gurean, musika ez da etxean *play* sakatzea bakarrik. Beste gauza bat da. Musikaren ingurukoek ere garrantzia dute guretzat, eta letretan ere islatu gura dugu hori.

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Maria Herrerosen marrazkiekin komiki bilakatuko dute Durangoko Arte eta Historia Museoa

Georgia O'Kefferen bizitzari buruzko komikia egiteko marrazkiak abuztuaren 28ra arte egongo dira ikusgai; Maria Herrero artistarenak dira piezak



Julian Ríos, María Herreros, Ima Garrastatxu, Garazi Arrizagalaga eta Asier Mensuro (behean).

MUSEOA • ARITZ MALDONADO

Erakusketa "desberdin eta berezia" aurkeztu dute Durangoko Arte eta Historia Museoa. "Komikia museoan erakutsiko den lehenengo aldia da eta hori nobedadea da. Gainera, gazteagoak museoera erakartzeko modua ere izango dela uste

dut", azaldu du Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak. Izan ere, Maria Herreros artista valentziarraren 102 pieza egongo dira ikusgai bertan. Georgia O'Kefferen bizitzari buruzko komikia egiteko baliaturiko zirriborroak egongo dira ikusgai, eta, Asier Mensuro ko-

misarioaren berbetan, erakusketa "aukera bikaina" da Herrerosen lan prozesua ezagutzeko. "Maria Espainiako artistarik originalenatariko bat da eta nazioartean ere ibilbide kontrastatua du. Georgia O'Keffe publikatzen zela heldu den ikusi daiteke museoan, eta aukera ona da

liburua osorik ikusteko", gaineratu du Mensurok. Horrez gainera, Mensurok azpimarratu du museoek euren katalogoan komikiak sartzeko korrantea dagoela. "Museologiako aitzindaritzan dago une honetan komikiak katalogoetan sartzeari. Adibidez, Louvre museoa, Georges

Pompidou Arte Zentroa, Prado museoa eta Thyssen Bornemisza aipatu ditzakegu. Beti gustatzen zait nabarmentzea artea dela herriek egin dezaketenen inbertsiorik onena".

Itxialdian sortua

Herrerosen 2020ko martxoan jasozuen, Astiberreren enkarguz, Georgia O'Keffe margolariaren bizitzari buruzko komikia egiteko eskaintza, koronabirusak eragindako pandemia hasi aurretik. "Emakume ekina zen O'Keffe, eta ni barrura begiratzekoa zen une batean murgildu nintzen bere munduan", azaldu zuen Herrerosek aurkezpenean. Komikia egitekoan, "O'Kefferen ahotan berea ez zen berbarik ez ipintzea" izan zen erronkarik handiena; horretarako, margolariak berak bere garaian idatzitako gutunetan oinarritu da. "Pentsatzen zuena esaten zuten, esaten zuena egiten zuten, eta bizitzen zuena margotzen zuten; asko ikasidut bere unibertsoan murgiltzen", gaineratu zuen. Maria Herreros ilustratzaileak Taschen, Lunwberg eta Astiberri argitaletxeekin lan egin du, besteak beste; La Vanguardia, El País eta Vogue publikazioekin ere lan egin du, eta bere lanak San Frantziskon (AEB), Bartzelonan eta Seulen egongo dira ikusgai.

Gai librean

Bero kolpeak

Gau sargoria gaur ere. Badoaz laupabost. Puztuta dituzu oinak, eskugai-netako zainak, baita nekea ere. Pentsamendu moteleko egunak. Goizeko zazpietatik bederatzietara baino ez duzu biltzen indar nahikoa. Profesional bihurtu zara etxea hotz "ez beroegi" mantentzeko olinpiadetan: kalkulatu duzu leihoak noiz itxi eta zabaldu, pertsianak zelan igo eta jaitsi —soilik filtroa kentzean ikusten dituzu balkoian zenituen lore ederretatik bizirik atera diren geranio erresistente bakarrak... eta bat-batean "dena" kiskaliko ote den beldur zara—.

Kulerotan zaude, eta kulerotan neurtzen duzu eguna, izerditutako eta aldatutako kulerotan. Izan zitekeen dutxa hotzetan ere. Halako batean, bururatu zitzaizun moskitera bat



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Kulerotan zaude, eta kulerotan neurtzen duzu eguna, izerditutako eta aldatutako kulerotan

egoki nola muntatu perfekzionatzen pasatzea beroaldia. Azala haginkadaz josita duzu, baina barrua lasaitzen laguntzen dizu eztenkadak amaitzeko posibilitatearen arteak. Lo eskaseko gauak dira hauek, edozertarako kapaz sentitzekoak.

"Inertzia termikoa" bilatu duzu halako batean bilatzailean, ea ba ote den giza gorputzak galtzen/gordetzen duen hotza/beroa jakiteko erregistrorik, sententzia duzu-eta ez zaizula inoiz tenperatura jaitsiko. Lo egiten saiatuko zara halere. Unibertsoaren ikuspegi

sakonena erakusten duen argazkiari begira, adibidez. Hondar ale baten tamaina ordezkatzeko duen irudia asteko albistearen artean, hondo beltza eta puntu argitsuz betea —egia esan, ilun eta haserre txiki-handien eztanda txinpartatsuz lepo sentitzen duzu zeure burmuina ere, lanaldi luzeegiko eta oporraldi laburregiko tarteen artean gatibatutako langile orok bezala—.

Beste notizia pizgarri bat: Euskal Herriko 12-13 urteko gazteek ez dituztela bertako animalia eta landare espezieak ezagutzen ondorioztatzen dute EHUK eta Aranzadik elkarlanean egindako ikerketa batean. Helduok akaso bai, ala? Kapaza zara aldaketa klimatikoa eta biodibertsitate galera azaltzeko? Jarri naiz, azterketako umeak bezala, bertoko 10 landare espezie zerrendatzen: aizue, kontuak ez zaizkit ateratzen ongi.



Aimar Morgaetxebarria Azkuna

Baiko enpresako pilotaria

ZORNOTZA | 2002

“Debuta gozatzeko da; gero etorriko dira irabazi beharreko partidua”

Aimar Morgaetxebarria pilota profesionalean debutatuko du, zapatu arratsaldean, Zornotzako Amorebieta IV pilotalekuan. Mikel Urrutikoetxea laguna izango du aurrelari. Biek Erik Jakaren eta Iker Elizegiren kontra jokatuko dute.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Ingeniaritza ikasketetako azterketak amaitu dituenetik, guztiz zentratuta dago pilotan. Entrenamenduetan oso gustura sentitzen dela dio. Debutatzeak eta etxean jokatzeko ilusio berezia egiten diote, baina argi du hau maratonia dela esprinta baino gehiago, eta partidua bakoitzagaz irabazi beharko duela eguneroko ogia.

Zelan zaude debuteko partiduen atarian?

Oraingoan, ondo. Egunen batean lo egitea kostatu zait, baina, tira, ingeniaritza zibileko ikasketetako azterketak ere amaitu berri ditut eta denagaitik izan daiteke. Familiagaz eta kuadrillakoekin ez dut debutar buruz berba egiten eta ondo dator trankil egoteko.

Familiari eta lagunei zeuk eskuriko da?

Neurri batean, bai. Ahalik eta gutxien berba egin gura nuela esan nien, eta ulertu zuten. Lagunen artean beti dago komentarioren bat edo beste, baina gutxi.

Entzuten genituen talde horiek hartu, eta doinu horiei buelta bat emateaz asmoa

Eta kalean, jaso duzu herritarren animo mezurik edo gomendiorik?

Bai, herriko jendeak zoriondu izan nau kalean eta frontoian. Zoriondu eta zortea opa. Ez debu-

teko partiduari begira bakarrik, etorkizunera begira ere bai.

Azterketak amaitu izanak ere lagundu dizu pilotan bakarrik zentratzen?

Bai, azterketak, pilota... azkenean, igarri dut karga hori. Luze egiten da. Orain pilotan zentratu naiz eta igartzen dut entrenamenduetan. Azken astean hobeto entrenatzen nabil eta lo ere hobeto egiten dut. Implikazio handiagoa dut pilotan.

Unai Laso izan behar zenuen bikotekide debutean, baina lesionatu egin da eta Mikel Urrutikoetxeagaz jokatu duzu, berez bihar zure aurkari izan behar zuen pilotariagaz.

Mikelegaz jokatzeko eta bera nire partiduko parte izatea berezia da niretzat. Bizkaian ikusi dudana pilotaririk onenatarikoa izateaz gainera, lagun handia dut. Orain hiru bat urte Baikoren egitura sartu nintzenetik, asko lagundu dit eta tratu ona izan dugu beti. Zorte itzela izan da. Debutatzea amets bat betetzea bada, imajinatu, gainera, Urrutikoetxeagaz jokatzeko.

Eta aurkarietako dagokienaz, azkenean Erik Jaka sartu dute Elizegiren bikotekide.

Pena da Laso lesionatu izana, baina Laso zein Jaka, biak pilotari handiak dira eta bietako batek nire debutean jokatzeko ilusioa egiten dit. **Irabazi zein galdu, ondoren jai egongo da?**

Bai, jakina, lagun guztiekin afalduko dut. Jatetxe batean 30 lagunetik gora batuko gara. Gainera,

Zornotzako jaiak dira eta osteratxo bat egin beharko da!

Aimar Olaizola ere gaztetan erreferente izan duzula aipatu izan duzue inoiz. Orain, Baikoko kirol zuzendaria da eta beragaz entrenatzen zara. Eman dizue aholkurik?

Aimarregaz askotan entrenatu naiz. Aholku asko ematen dit. Ez frontoi barruko kontuen gainean bakarrik, baita kanpokoekin gainean ere. Niretzat oso garrantzitsua da esaten didana. Debuteko partidua nire bizitzako egunik berezietarikoa izango da eta lasai irteteko eta gozatzeko esaten dit. Debuta gozatzeko da; gero etorriko dira irabazi beharreko partidua.

Beste partidua bi ere badituzte udan. Uztaillaren 24an Etxebarrin, eta abuztuaren 5ean Gasteizen

Iñaki Iza pilotari ohiak ere gomendio bera eman zizun ANBOTOn idatzi zuen iritzian artikuluan. "Gozatu bideaz" esan zizun. Hori da arrakastarako errezeta?

Irakurri nuen eta asko eskertzen diot idatzi zuena. Eta bai, zenbat eta gehiago gozatu orduan eta hobeto joango da denontzat. Gustura bazabiltza, entrenatzeraz ere pozik

zoaz eta orokorrean maila hobea emango duzue.

Aurrera begira, zelan dator uda? Bazu beste partidurik?

Bai, beste bi behintzat bai. Uztaillaren 24an Etxebarrin, eta abuztuaren 5ean Gasteizko Ogetan. Andre Maria Zuriaren txapelketako jardunaldi bateko hirugarren partidua jokatuko dut.

Afizionatuetako azken partidua Zaldibarren jokatu zenuen, orain aste bi. Berezia izan zen?

Egia esan, nahiko trankil irten nuen kantxara. Azken partidua zenez urduritxo egongo nintzela uste nuen, baina ez zen horrela izan. Galdu egin genuen, baina nire partidurik onena izan ez arren, ondo ibili ginela uste dut. Gainera, eskuetatik ondo ibili nintzen. Bannuen beldur apur bat, ze ez nuen eskuak mindu gura debutatu baino aste bi lehenago.

Afizionatuetan makina bat txapel irabazi duzu. Badago baten bat beste baina bereziagoa dena?

Ez nuke bat beste baten gainetik ipiniko. Adibidez, Zaldibarko Olazar txapelketan 22-21 galdu nuen iaz, eta aurrean irabaztea errebantxa hartzearen modukoa izan da. Diario Vasco txapelketa 22-21 irabazi nuen, lagun guztiak etorri ziren finala ikustera eta egun itzela izan zen. Gero, elkarregaz bazkaldu genuen. Azkenean, txapel bakoitzak bere berezitasuna eta garrantzia ditu.

Jon Larreak eta bere taldeak jarraituko dute Amorebietaren gidari

Gaur egungo presidentea eta bere lantaldea baino ez dira aurkeztu hauteskunde prozesura



Zuzendaritza batzordeko Mikel Berdugo, Jose Mari Gisasola, Luis Javier Laucirica, Jon Larrea, Asier Galarza, Jose Angel Estevez eta Unai Larrea.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Jon Larrea González buru duen zuzendaritza batzordeak jarraituko du Amorebieta futbol klubaren gidari datozen lau urteetan. Izan ere, hauteskunde prozesuak markatzen duen epealdia amaituta, berea izan da aurkeztu den hautagaitza bakarria. Beraz, ez da hauteskunderik egin behar.

"Erantzukizun handia da, baina ilusio handiz aurre egingo diogu. Maila ematea eta bazkideak gure lanagaz pozik egotea espero dugu", adierazi du Larrea presidentea.

Larrearen lantaldeak 2018an hartu zuen klubaren gidaritzaren oso legegintzaldi mugitua izan dute, bai zelaian eta baita bulegoetan ere. Sartu eta berehala egindako auditoriak zor handia azaleratu zuen. Panorama horretan, ezustekoa izan zen taldea bere historian lehenengoz Bigarren Mailara igo izana. Abenturak urtebete iraun zuen, baina kluba saneatzeko balio izan du. "Amorebietaren gaur egungo egoera ekonomikoa ona dela esan dezakegu", adierazi zuen Larreak ligara amaitu ostean, eta, aurrera

begira, klubaren egoera "egonkortzea" dute helburu.

Denboraldiaurrea

Hauteskunde prozesuak ez du Amorebieta klubeko eguneroko martxa gelditu eta Lehenengo RFEF mailako denboraldiaurrea prestatzen dabilta apurka-apurka. Dagoeneko lagunarteko hiru partidurak lotu dituzte. Hirurak abuztuaren izango dira, Urritxe futbol zelaian: 6an Osasuna Promesasen aurka, 10ean Numantziaren aurka eta 13an Bilbao Athleticen aurka.

Durangoko Kulturalak hainbat fitxaketa iragarri du

Lau fitxaketa berri iragarri dituzte. Harrobiko hainbat jokalarik lehenengo taldeagaz egingo du denboraldiaurrea

FUTBOLA • J.D.

Durangoko Kulturala denboraldi berrirako taldea osatzen dabil. Fitxaketa bi aurrelariak dira: Guillermo Ruiz eta Ager Badiola. Ruiz bilbotarra da, 25 urte ditu, Barakaldo taldetik dator eta aurretik Kulturean ibilitakoa da. Badiola gernikarra da, 22 urte ditu eta Eibar Urko taldetik dator.

Hirugarren fitxaketa Kultureko harrobiko Manex Asategi durangarra da. Hegaleko jokalariek 21 urte ditu eta azkeneko denboraldi bietan Baskonian aritu da.

Kevin Calle gasteiztarak Durangoko klubaren atzealde indartuko du. 29 urte ditu eta Portugalete taldetik dator. Oraingoan, Mathias Senghor da iragarri duten azken fitxaketa. 22 urteko abadiñarra Eibar-CD Vitoria taldetik dator.

Bestalde, Kultureko gazteen taldeetan aritu diren Mikel Baig eta Lander Arrillaga hegaleko jokalariek eta Josu Ayarzagüena atezainak talde nagusiagaz egingo dute datorren denboraldia.



Mikel Baig eta Lander Arrillaga.

Jokaldia

Orain artekoaren laburpena

Mendi lasterketen denboraldia bere erdigunera iritsi den honetan, orain arteko lasterketen eta inguruko korrikalarion emaitzaz hitz egin nahiko nuke.

Etxetik hastearren, Euskal Mendi Federazioaren kopan honelaxe dago sailkapena 4 proba eginda: nik, 296 punturekin, aurrean jarraitzea lortu dut Bastida Trailen ondoren. Atzetik indartsu dator Ainara Urrutia, 276 punturekin. Lorena Guinaldo (268 p) doa hirugarren, Lorena Campomar laugarren (180p), eta Olatz Aizpitarte elorriarrak ixten du lehen 5 nesken sailkapena, 164 punturekin. Mutiletan Asier Larruzea, Imanol Goñi eta Ander de Luis daude lehen postuetan. Urduñan erabakiko da aurtengo kopako irabazlea, azaroan. Behin behineko



Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak

lidertza honi esker, Skyrunner World Serieseko proba den Skyrace Comapedrosa (Andorra) lehiatzeko aukera eman didate EMFko mendi lasterkarien hautatzaileek.

Mundu mailako zirkuitu honen amaiera paregabea Zeanuriko Gorbeia Suzien izango da eta hantxe elkartzeko dira zirkuituko orain arteko probetan lehenbiziko postuetan sailkatu diren korrikalariak. Horiexek izendatu nahi nituzke, azpimarratzekoa baita euskal korrikalarien maila. Oraingoan, hauek dira Gorbeia finalerako sailkatuak Euskal Selekzioarekin lehiatu diren artean: Ainara Urrutia (laugarrena izan zen Matheysineko proban, Sara Peña (4. Madeiran eta 5. Garmin Epic Trailen), Maud Combarieu, (5. Madeiran), Ainara Urbarri (9. Hockoning-en), Sandra Sevillano (2. Gar-

min-en), Nerea Amilibia (7. Garmin-en) eta Ismail Razga (8. Garmin-en).

Euskal korrikalari gehiago ere badaude sailkatuta finalerako: Maite Maiora bigarren doa munduko ranking orokorrean, 6tik 3 probatan parte hartu eta emaitza onak lortu dituelako. Oihana Azkorbebeitiak proba bakarrean parte hartu du oraingoan, baina berau irabazi. Garmin Epic Trailleko garaipen garrantzitsuak zazpigarren postuan jarri du abadiñarra rankingean.

Ander Iñarra, Asier Larruzea eta Iñigo Macias ere sailkatu dira finalerako. Aipatzekoa da Iñarra bosgarren doala mundu mailako rankingean.

Gorbeia Suzien aukera ederra izango da euskal korrikalarien maila polita erakusteko; urrira arte itxaron behar, ordea. Bien bitartean, segi dezagun mendiaz gozatzen.

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 16ra arte

UDAKO
8. ARGAZKI
LEHIAKETA

 **anboto**



Durungaldeko 2021eko
argazkia
IRABAZLEA



Durangaldetik kanpoko
2021eko argazkia
IRABAZLEA

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat Euskal Herriko produktuz betea.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat beren markako Gourmet produktuekin.
- Publikoaren saria: tablet bat.

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK

 **databost**
Informatika & Telekomunikazioak

 **Alcampo**
DURANGO

 **Garai**
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 15 · 09:00-09:00	ASTELEHENA, 18 · 09:00-09:00
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 16 · 09:00-09:00	MARTITZENA, 19 · 09:00-09:00
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
09:00-13:30	09:00-22:00
DE DIEGO INTXAURRONGO 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 20 09:00-09:00
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR ERREKAKALE 6. - ELORRIO	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
09:00-14:00	09:00-22:00
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	EGUENA, 21 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO
DOMEKA, 17 · 09:00-09:00	RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	09:00-22:00
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Kuadrillako kirolaridxe be badoie nagusitzen. Zorionak, **Marti**, eta bidex ospatuz 29dxek a lo grande. Mosu handi bat!



Paule Abanzabalegi Iza. Uztailearen 12an 6 urte egin zenituen! Zorionak Nare eta etxeko danen partez!



Uztailearen 17an **Oihane Echevarriak** urteak egiten ditu. Zorionak osaba Yosus eta izeko Carmenen partez.



Zorionak, **Argia**, gure etxeko rubia bihurria!



Zorionak, **Bidane!** Eta kriskitin kraskitin larrosa krabelin 30 urte egin dozuz. Albiztur bai, txokolatea ere bai! Euridxe zein eguzkidxe, Larriñan beti dau argidxe!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 33° / 20° ☀️

ASTELEHENA ↓ 36° / 22° ☀️

EGUAZTENA ↓ 26° / 19° ☁️

DOMEKA ↓ 34° / 21° ☀️

MARTITZENA ↓ 26° / 19° ☁️

EGUENA ↓ 26° / 19° ☁️

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

 1 ^o M, AMA, EME, UME Erika Lagoma / Estitxu Fernandez (Elkar)	 2 ^o MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA Joseba Sarrionandia / Ares (Pamiela)	 3 ^o ERMITAK BIDE, DURANGALDEA BIZI Ramon Castillo / Ibon Murua (Alpino Tabira)	 4 ^o EZ ERRAN INORI Maddi Ane Txoperena (Elkar)	 5 ^o AZKEN ETXEA Arantxa Urretabizkaia (Pamiela)
--	--	---	---	--

“Gaztandegian jardutea da benetan gura izan dudana beti”

Gaztagile familia bateko hirugarren belaunaldikoa da Aitor Uribe. Ardi latx muturbeltzaren esneagaz Idiazabal gazta egiten du eta Artzain Gazta elkarteko kidea ere bada



Aitor Uribe Padilla

**Padilla gaztandegia
OTXANDIO | 1982**

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Idiazabal gazta egiteak dedikazio eta mimo handia eskatzen du, Aitor Uribek aitortu duenez. Otsail-martxo inguruan hasten dira gazta egiten Mekoletako Padilla gaztandegian, uztaila amaitu artean. Urtean 5.000-6.000 gazta ekoizten dituzte, inguruko komertzio eta azoketan saltzeko. Uribek 06:00etan hasten du eguna, ardiak batu eta akuiluko lanak egiteko.

Hiru urtetik hona Padilla gaztandegiaren ardura duzu. Zerk eraman zintuen erabaki hori hartzera?

Betidanik lan egin dut familiako ustiapenean. Ordu libreetan, as-

teburuetan osabari lagundu diot beti gaztandegian, kalean neure lana nuen arren. Osaba bakarrik

“Aldaketen aurrean beti sortzen dira zalantzak, baina guztiz asmatu nuen. Oso pozik nago egiten dudana lanagaz”

zegoela ikusita, eta ustiapena gainbehera zihoala, gaztandegian erabateko ardura hartzea eraba-

ki nuen, proiektua sendotu eta aurrera begira proiektu berriak bultzatzeko. Orain gazta ondua egiten dugu, baina beste gazta batzuk ere egin gura ditugu. Epe laburrera, gazta ketua aterako dugu.

Erabaki gogorra izan zen?

Ez zen erabaki gatxa izan. Aldaketen aurrean beti sortzen dira zalantzak, baina guztiz asmatu nuen. Oso pozik nago egiten dudana lanagaz; orduak, egunak eta asteak ia konturatu ere egin barik pasatzen dira.... Hau da benetan gura izan dudana beti.

Beraz, Andoni Padilla osabaren lekukoa hartu duzu gaztandegian.

Bai, osaba neure esku dabil uzten dena. Biok lan egiten dugu gaztandegian, baina ardura guztiak neure esku utzi gura ditu. Gauza berriak aurrera atera guran gabiltza, amaren ezinbesteko laguntzagaz. Aitita hasi zen gazta egiten, eta gero osabak eta amak jarraitu dute. Orain neuk hartu dut ardura, baina eurak ere hor daude.

Gaztandegia aurrera bakarrik eramatea ez da erraza izango.

Egin, egin liteke, baina ordu asko eskatzen du. Ganadua, gaztandegia, artaldea... pertsona bakarrik dena egitea oso gatxa da. Bada, gaztaren komertzializazioaz ama arduratzen da. Bere laguntza oso baliagarria eta garrantzitsua da momentu honetan.

“Artaldea gobernatzea ez da gatxa, baina dedikazioa eskatzen du. Askotan egunak ez du nahikoa ordu lan guztiak egiteko”

Zelako artaldea daukazue?

Ardi latx muturbeltzak dauzagu, 400 bat buruko artaldea. Bertako arrazaren aldeko apustua egiten dugu beti. Inguruko orografiara hobeto egokitzen delako eta horrenbeste denboran akuiluan egon barik produkzio duin bat ateratzeko gai delako. Oso kontuan hartzen dugu ardiengizatea, horrek ardi-esnearen kalitatean eragina du eta. Artaldeaz gainera, okeletarako 25 behi ere badauzkagu. Txahalak hazten ditugu, gero okela sortetan saltzeko. Inguruko herritarrei saltzen diegu.

Denak gobernatzea ez da erraza izango.

Ez da gatxa, baina dedikazioa eskatzen du. Askotan egunak ez du nahikoa ordu lan guztiak egiteko. Baina bizitza pertsonala ezin da albo batera utzi. Biak uztartu behar dira, bestela eguneko 24 orduak baserrian lanean egon zintezke, urten ere egin barik. Abuztutik urtarrilera malgutasun handia dugu eta oporrak hartzeko aukera ere badugu, ondo antolatuz gero.

Lau-hortza

Martin Loizate Sarrionandia Behargina



Bitartean

Idatziko nuke udako oportunitate ezagutu lekuez edo loretan dauden sagarrondoez. Idatziko nuke eguzkipean irakurritako liburuen iruzkin bat, kontzerturen baten kronika. Ahaleginduko nintzateke zutabe alai bat egiten sikiera, egun bero honetan freskura pixka bat emateko gai dena.

Astearte gaua da, bihar goiztik bidaliko diot idatzia oraindik oporrak hartu ez dituen kazetariari, behin zuzentzailearen galbahea pasata, etzi maketaztaileak zutabe forma eman eta nire argazkia erantsi ostean, inprentara bidali eta ostiral goizerako milaka ale inprimatuta izateko, banatzaile gazteak eguerdiko eguzkiaren azpian orgatila hartuta etxez etxe banatu ditzan.

Eta, bitartean, igoal emakume bati eraso egin dio gizon batek alboko herriko jaietan, agian berriz erreprimatu du bortxaz protesta bat poliziak edo beste pertsona bat hilda inguratzen gaituzten mugak zeharkatzen. Baliteke bitartean espetxean jarraitzea Iruñeko Kuria kaleko gertakariengatik atxilotuak, beharbada Madrilera bidean daramate beste euskaldunen bat. Apika gasolinaren prezioak bi euro eta erdiak pasatu ditu, edo negurako gas erre-serbarik gabe geratu garela onartuko digute agintariek. Akaso beste telebista aurkezle edo kazetariren bat harrapatu dute zerbitzu sekretuekin trapitxeoan, menturaz Euskal Herriko hedabideren baten zuzendaria da.

Garai txarrak dira hauek lirikarako –inoiz garai onik izan bada–, eta haatik inoiz baino beharrezkoagoa zaigu. Baina ahalketuko nintzateke buzoian astekaria jaso eta sagarrondoez irakurtzean.

Smurfit Kappa
Central forestal

55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión